DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea
Comisión de Servicios a las Personas

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

## 25. AKTA

**Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea**

**Batzar mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2025-09-15

**Ordua:** 12:02

**Tokia:** Loretope Aretoa

**Batzordeburua:**

Iñaki Gabarain Gaztelumendi

**Etorritakoak:**

**Batzordeko kide diren zinegotziak:**

Jon Insausti Maisterrena

María Jesus Idoeta Madariaga

Martin Ibabe Eceiza

Kerman Orbegozo Uribe

Sandra Barrenetxea Diez

Markel Ormazabal Gaztañaga

Izar Hernando Ibero

Vanesa Vélez de Pablos

Arantza González García

**Beste zinegotzi batzuk:**

Itziar Iturri Arrazola *(12:12an bileratik atera da)*

Ricardo Burutaran Ferré *(12:14an bilerara bertaratu da eta 12:27an atera da)*

Juan Marrero Vizcaíno

Victor Lasa Briz *(13:10an bileran sartu da)*

## ACTA N.º 25

**Comisión de Servicios a las Personas**

**Sesión:** Ordinaria

**Día:** 15-09-2025

**Hora:** 12:02

**Lugar:** Sala Loretope

**Preside:**

Iñaki Gabarain Gaztelumendi

**Asistentes:**

**Concejales y concejalas miembros de la Comisión:**

Jon Insausti Maisterrena

María Jesus Idoeta Madariaga

Martin Ibabe Eceiza

Kerman Orbegozo Uribe

Sandra Barrenetxea Diez

Markel Ormazabal Gaztañaga

Izar Hernando Ibero

Vanesa Vélez de Pablos

Arantza González García

**Otros/as concejales/as :**

Itziar Iturri Arrazola *(se retira de la sesión a las 12:12h)*

Ricardo Burutaran Ferré *(se incorpora a la sesión a lass 12:14 h. y se retira a las 12:27h)*

Juan Marrero Vizcaíno

Victor Lasa Briz *(se incorpora a la sesión a las 13:10h)*

12447n II

**Idazkaria:** Irune Larrea Sistiaga, Idazkariak eskuordeturik.

**Secretaria:** Irune Larrea Sistiaga, por delegación de la Secretaria General.

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**1.- 2025eko uztailaren 14an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.**

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 14 de julio de 2024.**

Bozketa egin eta aho batez onartu da 24. akta, 2025eko uztailaren 14an egindako bilerari dagokiona.

Se aprueba por unanimidad el acta número 24, correspondiente a la sesión celebrada el día 14 de julio de 2025.

**2.- Kultur Aniztasunaren Kontseilu Sektorialaren erregelamenduaren hasierako onarpena.**

**2.- Aprobación inicial del Reglamento del Consejo Sectorial de Diversidad Cultural.**

“UDALBATZARI

KULTUR ANIZTASUNAREN KONTSEILU SEKTORIALAREN ARAUDIAREN HASIERAKO ONARPENA

Herritarren Partaidetzari Buruzko Arau Organikoaren Arrazoien Azalpenean esaten den bezala, Udalak bere jardunbide egokirako erakundeek interes orokorraren alde erabakiak hartzeko eta etengabeko jarduteko gaitasuna eduki behar du, betiere herritarren eskakizunak eta egoerak kontuan hartuta.

Administrazioek beharrezkoa dute beren eskumen ekogaietan herritarrek duten iritzia jakitea, gizarte eskakizunei erantzun bat ematen ahalegintzeko. Eta halaber, beren erabaki eta jardueren erantzukizuna hartu behar dute haien aurrean.

Toki-erakundeei buruzko legediak eta baita Donostiako Udalaren Arautegi Organikoak eta Hiritarren Partaidetzako Araudiak ere, udal politikaren arlo jakinetan aholkularitza, informazioa, eztabaida, azterketa eta proposamen parte-hartze organo iraunkorrak izango diren Kontseilu Sektorialak sortzeko aukera aurreikusten dute.

Udal Kontseilu Sektorialen ezaugarri, helburu eta eginkizun zehatzak dituzten partaidetza organoak dira.

Partaidetzaren esparru zabal honetan Kontseiluak Gobernu Irekiaren planteamenduaren barne kokatu behar dira. Funtsezkoa hiriaren eguneroko eraikuntzan lan egiten duten eragileek ( Udal Gobernua, plenoa osatzen duten gainontzeko udal

“AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO

APROBACIÓN INICIAL DEL REGLAMENTO DEL CONSEJO SECTORIAL DE DIVERSIDAD CULTURAL

Tal y como se establece en la exposición de motivos de la Norma Orgánica de Participación Ciudadana, el buen gobierno municipal precisa de la continua capacidad de las instituciones para decidir y actuar en defensa del interés general, en sintonía con las circunstancias y demandas de la ciudadanía.

Las administraciones necesitan conocer la opinión de las ciudadanas y los ciudadanos sobre los asuntos de su competencia para tratar de responder a las aspiraciones sociales. Y ante aquellos deben responder de sus decisiones y actos.

La legislación de régimen local, el Reglamento Orgánico Municipal del Ayuntamiento de San Sebastián y la Norma orgánica de Participación Ciudadana contemplan la posibilidad de crear Consejos de participación sectorial permanentes que se constituyen como espacio para el asesoramiento, la información, el debate, el estudio y la propuesta en relación con asuntos en un área concreta de la política municipal.

Los Consejos Sectoriales Municipales son órganos de participación con sus características, objetivos y funciones específicas.

Se considera que los Consejos se deben situar dentro del planteamiento del Gobierno Abierto. Es fundamental que los diversos agentes que construyen el día a día de la ciudad (El Gobierno local, representantes de los grupos municipales de

taldeetako ordezkariak, antolatutako herritarrak, beste erakundeak, eragile publiko eta pribatuak, eta teknikaria) lan konpartiturako esparru sektorialak partekatzea, beti ere arlo tematiko bakoitzak eskatzen duen moduan.

Kontseilu guztiak Udal Organo Aholkulariak dira, eta ondorioz hiriko partaidetzari buruzko ikuspegi orokorraren eta gaikako helburu eta tematika bakoitzari dagokion helburu eta funtzio espezifikoen arteko lotura izan behar dute beti kontuan.

Donostian, azken hamarkadetan aniztasun soziokulturalak nabarmen gora egin duen hiria dugu. Atzerritar jatorriko biztanleak % 10 baino gehiago dira, eta ijito-herria ere kontuan hartu behar dugu. Aniztasuna errealitatea da, eta funtsezkoa da hiriko eta auzoetako bizimodua ulertzeko.

Donostiak kulturartekotasunarekiko duen konpromisoa indartu egin zen 2013an, Kultura Aniztasunaren udal saila sortu zenean, hiriko kultura aniztasunari erantzuteko erantzun publikoak antolatzeko eta herritar guztien aukera-berdintasuna eta eskubide sozial eta politikoak bermatu ahal izateko, haien jatorria, nazionalitatea edo talde etnikoa edozein dela ere. Udalak bat egiten du Europako Kontseiluak sustatutako kulturarteko hiriaren printzipioekin, eta, beraz, herritar guztien arteko ezagutza, errespetua eta elkarrekintza sustatzen ditu.

2014az geroztik, Kultur Aniztasuneko saila herritar erakundeekin biltzen ari da, elkarrizketa sustatzeko eta aniztasuna kudeatzeko "Kultur aniztasuneko eragileen sarea" izeneko partaidetza-gune batean. Hamabost bat elkartek parte hartzen dute bilkuretan, modu aktiboan gainera, eta gai zehatzak lantzeko *EEL-AD hoc* lantaldeak sortu dira.

10 urte geroago, bai sailak, bai kultur aniztasuneko eragileek berek, egokitzat jotzen dute gune hori formalizatzea, arauak, bilkuren deialdien erregulartasuna eta eragiteko gaitasun handiagoa emateko.

Araudi hau egiteko aurretiazko kontsulta publikorako epe bat gaitu zen, 2025eko urtarrilaren 8tik 2025eko urtarrilaren 29ra.

3 ekarpen jaso ziren. Kontsulta publiko horretan egindako ekarpenen laburpena espedientean sartuta dago.

la corporación, la ciudadanía organizada, otras instituciones, agentes públicos y privados, y el personal técnico) compartan espacios de trabajo sectoriales que se vayan configurando según las necesidades de cada tema.

Todos los Consejos son Órganos de participación de carácter consultivo del Ayuntamiento, y en consecuencia deben siempre tener presente la necesaria vinculación entre la visión general sobre la participación ciudadana y los objetivos y funciones específicas de cada Consejo temático.

En Donostia / San Sebastián, compartimos una ciudad que ha experimentado un aumento considerable de la diversidad sociocultural en las últimas décadas. La población de origen extranjero ya supera el 10%, y también tenemos que tener en cuenta al pueblo gitano. La diversidad es una realidad, y es clave para entender la vida en la ciudad y en los barrios.

El compromiso de Donostia / San Sebastián con la interculturalidad se refuerza en 2013, cuando se crea el departamento municipal de Diversidad Cultural, con el fin de articular respuestas públicas para atender la diversidad cultural en la ciudad, y poder garantizar la igualdad de oportunidades y los derechos sociales y políticos de toda la ciudadanía, independientemente de su origen, nacionalidad o grupo étnico de pertenencia. El Ayuntamiento se adhiere a los principios de la ciudad intercultural promovidos por el Consejo de Europa y, como tal, promueve el conocimiento, el respeto y la interacción entre toda su ciudadanía.

Desde 2014, el departamento de Diversidad Cultural se viene reuniendo con las entidades ciudadanas relacionadas en un espacio de participación para el fomento del diálogo y la gestión de la diversidad denominado “Red de agentes de diversidad cultural”. A las sesiones asisten de forma regular una quincena de asociaciones, que además participan de forma activa, y se han creado grupos de trabajo ad hoc para trabajar temas concretos.

10 años después, tanto el departamento como los propios agentes de diversidad cultural consideran oportuno formalizar este espacio, a fin de dotarle de normas, regularidad en la convocatoria de sesiones, y más capacidad de incidencia.

Para la elaboración de este Reglamento del Consejo Sectorial de Diversidad Cultural, se procedió a habilitar un período de consulta pública previa desde el 8 enero de 2025 hasta el 29 de enero de 2025.

Se recogieron 3 aportaciones. El resumen de las aportaciones realizadas durante dicha consulta pública está incluido en el expediente.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko uztailaren 15ean egindako bilkuran, Kultura Aniztasunaren Kontseilu Sektorialaren Araudi Proiektua onartzea erabaki zuen.

Hori horrela, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985) 49. artikuluan xedatutakoarekin bat, hasierako onarpena eman behar zaio. Horretarako, honako akordio hau hartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

**AKORDIOA**

**Lehenengoa:** Kultur Aniztasunaren Kontseilu Sektorialaren araudia hasiera batean onartzea.

**Bigarrena:** Espedientea informazio publikoko eta interesdunen entzunaldiko izapidean jartzea hogeita hamar egunez, erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko.

Ez bada erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten, akordioa behin betiko onartuta dagoela ulertuko da."

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 15 de julio de 2025, acordó aprobar el Proyecto de Reglamento del Consejo Sectorial de Diversidad Cultural.

Procede en consecuencia y de conformidad con lo establecido en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, su aprobación inicial, por lo que se propone al Pleno del Ayuntamiento la adopción del siguiente

**ACUERDO**

**Primero:** Aprobar inicialmente el Reglamento del Consejo Sectorial de Diversidad Cultural.

**Segundo:** Someter el expediente a la información pública y audiencia a las interesadas y a los interesados por el plazo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

En el caso de que no se presentase ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

Donostian, sinaduraren egunean

Elena Sanz Aizpurua
Kultur Aniztasunaren Bulegoko Teknikaria

Imanol Telleria Gotor
Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzuaren burua

Iñigo García Villlanueva
Aniztasuna, Inklusioa eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria
(Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko urriaren 1ean eskuordetza emanik)"

Juan Marrero jaunak eta Itziar Iturri andreak hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Aurreko proposamenaren berri eman ondoren, eta EH BILDU Taldeak lau zuzenketa aurkeztu dutenez, horiek bozkatu dituzte.

**EH BILDU Taldearen 1. zuzenketa teknikoa** bozkatu da, eta hau da emaitza:

Zuzenketa ONARTU DA. Boto hauek izan dira:

- Aldeko botoak: 10 – (4) EAJ/PNV; (3) EH BILDU; (2) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
- Aurkako botoak: 0

Intervienen el Sr. Marrero Vizcaíno y la Sra. Iturri Arrazola en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

Dada cuenta de la precedente propuesta, y habiéndose presentado cuatro enmiendas del Grupo EH BILDU, se procede a votar las mismas.

Sometida a votación la **enmienda de corrección técnica n.º 1 del Grupo EH BILDU**, se obtiene el siguiente resultado.

La enmienda es APROBADA con los siguientes votos:

- Votos a favor: 10 – (4) EAJ/PNV; (3) EH BILDU; (2) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
- Votos en contra: 0

- Abstentzioak: 1 – PP.

**EH BILDU Taldearen 2. zuzenketa teknikoa** bozkatu da, eta hau da emaitza:

Zuzenketa ONARTU DA. Boto hauek izan dira:

- Aldeko botoak: 10 – (4) EAJ/PNV; (3) EH BILDU; (2) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
- Aurkako botoak: 0
- Abstentzioak: 1 – PP.

**EH BILDU Taldearen 3. zuzenketa teknikoa** bozkatu da, eta hau da emaitza:

Zuzenketa ONARTU DA. Boto hauek izan dira:

- Aldeko botoak: 10 – (4) EAJ/PNV; (3) EH BILDU; (2) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
- Aurkako botoak: 0
- Abstentzioak: 1 – PP.

**EH BILDU Taldearen 4. zuzenketa teknikoa** bozkatu da, eta hau da emaitza:

Zuzenketa ONARTU DA. Boto hauek izan dira:

- Aldeko botoak: 10 – (4) EAJ/PNV; (3) EH BILDU; (2) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
- Aurkako botoak: 0
- Abstentzioak: 1 – PP.

Zuzenketak bozkatu eta gero, proposamena bozkatu da. Aldeko irizpena jaso du, EAJ/PNV (4), EH BILDU (3), PSE-EE (2) eta ELKARREKIN DONOSTIA (1) Taldeen 10 ordezkariek alde bozkatuta eta PP (1) Taldearen ordezkariaren abstentzioarekin.

- Abstenciones: 1 – PP.

Sometida a votación la **enmienda de corrección técnica n.º 2 del Grupo EH BILDU**, se obtiene el siguiente resultado.

La enmienda es APROBADA con los siguientes votos:

- Votos a favor: 10 – (4) EAJ/PNV; (3) EH BILDU; (2) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
- Votos en contra: 0
- Abstenciones: 1 – PP.

Sometida a votación la **enmienda de corrección técnica n.º 3 del Grupo EH BILDU**, se obtiene el siguiente resultado.

La enmienda es APROBADA con los siguientes votos:

- Votos a favor: 10 – (4) EAJ/PNV; (3) EH BILDU; (2) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
- Votos en contra: 0
- Abstenciones: 1 – PP.

Sometida a votación la **enmienda de corrección técnica n.º 4 del Grupo EH BILDU**, se obtiene el siguiente resultado.

La enmienda es APROBADA con los siguientes votos:

- Votos a favor: 10 – (4) EAJ/PNV; (3) EH BILDU; (2) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
- Votos en contra: 0
- Abstenciones: 1 – PP.

Una vez votadas las enmiendas, se somete a votación la propuesta, siendo dictaminada o informada favorablemente con los 10 votos a favor de los vocales representantes de los Grupos EAJ/PNV (4), EH BILDU (3), PSE-EE (2) y ELKARREKIN DONOSTIA (1) y la abstención de la vocal representante del Grupo PP (1).

* * * *

Batzordeko kideen adostasunez, batzordeburuak 4. gaia jorratzea erabaki du aztergaien hurrenkera aldatuz.

Con la conformidad de los y las miembros de la comisión, el Presidente decide tratar el punto n.º 4, alterando el orden del día.

* * * *

**Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Kaleko Afari Solidarioen bosgarren urteurrenari buruz**

Izar Hernando andreak hurrengo interpelazioa labur azaldu du:

"Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, interpelazioa egiten dio Maria Jesús Idoeta Gizarte Ekintzako zinegotzi delegatuari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

2020eko azaroan, zenbait donostiar afariak banatzen hasi ziren, hirian kale egoeran zeuden eta haien elikadura beharrak ase ez zituzten pertsonei gauero afari beroak prestatuz. Lehenik Alde Zaharrean, ondoren Egian eta ostean Amara Berrin, pandemiaren testuinguruan eta behin-behineko izaeraz abiatu zen ekimen honek jada bost urte beteko ditu.

Azken Kale Gorrian zenbaketaren arabera 400+ herritar ditugu kale egoeran Donostian. Kopuru hau Kaleko Afari Solidarioak ekimena abiatu zenetik izugarri hazi da eta, ondorioz, baita KASek gauero banatzen duen afari kopurua ere. Bitartean, Donostiako Udalak alor honetara bideratutako bitartekoak ez dira abiada berean hazi, eta hutsunea begi-bistakoa da, oraindik ere hainbat eta hainbat pertsonak egunean izaten duten otordu bakarra KAS ekimenaren bidez jasotzen dutena baita.

Gaiak begirada luzeko irtenbideak eskatzen ditu, eta hirian elikadura beharrei erantzuteko plan integrala behar du, zalantzarik gabe. Horrek, gainera, segur aski, hiriaz gaindiko instituzioekin partekatua izango den estrategia komuna ere eskatzen du. Baina bitartean, batetik, egunerokoa da hamarnaka -ehundaka- herritarrek hirian elikadura beharrei lotuta duten gabezia. Bitartean, bestetik, hamarnaka herritarrek, Kaleko Afari Solidarioen baitan, lan boluntarioa, inbertsio ekonomiko eta emozional handia egiten du gaueroko afarien prestaketan eta banaketan; bigarren hau lehenaren ondorio dela ezin ahaztu. Horregatik, eta plan integrala diseinatu bitartean, KAS ekimenak egun ez dituen bermeak jaso behar lituzkeela uste dugu udaletxearen eskutik: laguntza ekonomikoaz gain(KAS ekimenak milaka euro suposatzen baititu urtero), banaketarako tokiak erraztea eta horietan segurtasuna bermatzeko

**Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, en relación con el quinto aniversario de las Cenas Solidarias en la Calle.**

La Sra. Hernando Ibero expone brevemente la siguiente interpelación:

"Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH BILDU, presenta, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente interpelación a María Jesús Idoeta, concejala delegada de Acción Social, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

En noviembre de 2020, algunos donostiarras comenzaron a ofrecer cenas calientes a personas que estaban en situación de calle en la ciudad y no tenían cubiertas sus necesidades alimenticias, en primer lugar en el la Parte Vieja, posteriormente en Egia y más tarde en Amara Berri. Recordemos que esta iniciativa que se puso en marcha con carácter provisional en el contexto de la pandemia, y que cumple ya cinco años.

Según el último recuento Kale Gorrian, en San Sebastián hay más de 400 personas en situación de calle. Desde la puesta en marcha de la iniciativa Kaleko Afari Solidarioak, esta cifra se ha disparado y, en consecuencia, también el número de cenas que distribuye cada noche KAS. Sin embargo, los recursos destinados a este fin por parte del Ayuntamiento de San Sebastián no han crecido a la misma velocidad, y el vacío existente es evidente, ya que, para muchas personas, la única comida que hacen al día es la que reciben a través de la iniciativa KAS.

Este asunto requiere soluciones con una visión a largo plazo y debe contar necesariamente con un plan integral que dé respuesta a la necesidades de alimentación existentes en la ciudad. Esto exige, además, una estrategia común que probablemente vaya a ser compartida con instituciones supra-urbanas. Pero mientras tanto, la carencia alimentaria que sufren decenas –centenares– de personas en nuestra ciudad es diaria. Al mismo tiempo, decenas de ciudadanos y ciudadanas, dentro de la iniciativa Kaleko Afari Solidarioak, realizan un trabajo voluntario, una inversión económica y emocional importante en la preparación y reparto de estas cenas cada noche; y no podemos obviar que esto es consecuencia directa de la mencionada carencia alimentaria. Por ello, y hasta que se diseñe un plan integral, consideramos que la iniciativa KAS debería recibir por parte del Ayuntamiento las garantías que

laguntza eskaini behar luke udalak, KASeko kideek eurek behin baino gehiagotan eskatu duten bezala.

actualmente no tiene: además de una ayuda económica (ya que la iniciativa KAS supone miles de euros anuales), el Ayuntamiento debería facilitar espacios para el reparto de estas cenas y también apoyo para garantizar la seguridad en ellos, tal y como han solicitado los propios miembros de la iniciativa KAS en más de una ocasión.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente **INTERPELACIÓN**:

1. Zer dela eta, Kaleko Afari Solidarioek bost urte beteko dituzten honetan, udalak jarraitzen du elikadura beharrei erantzuteko bitarteko oso mugatuak eskainiz?
2. Zer dela eta ez du Udalak, elikadura beharrei modu integralean erantzun bitartean, Kaleko Afari Solidarioei laguntzeko bitartekorik jartzen, segurtasunari, banaketa-guneei eta baliabide ekonomikoei dagokienean?
3. Zein dira egun Udalak elikadura beharrak asetzeko martxan dituen egitasmoen egoera? Zein dira egitasmo horiek eta zenbat otordu banatzen dira egitasmo bakoitzaren bidez? Zein balorazio egiten du egitasmo horien inguruan Udal Gobernuak?
4. Villa Saliako eguneko zentro berriko egitasmoan sartzen den janari banaketa non egingo da? Beteko al da lizitazioan enpresak aurkeztutako banaketa-puntua?
5. Zein da Udal Gobernuaren aurreikuspena, elikadura beharrak asetzeko zerbitzuei dagokienean, datozen hilabete eta urteei begira? Aurrerapausorik emango al du?

1. ¿Por qué cuando la iniciativa Kaleko Afari Solidarioak va a cumplir cinco años, el Ayuntamiento sigue ofreciendo unos medios muy limitados para dar respuesta a necesidades de alimentación?
2. ¿Por qué motivo el Ayuntamiento no establece recursos de apoyo a las Kaleko Afari Solidarioak en cuanto a seguridad, puntos de reparto y recursos económicos, mientras no se atiendan las necesidades alimentarias de forma integral?
3. ¿Cuál es la situación actual de los proyectos municipales para satisfacer las necesidades alimentarias? ¿Cuáles son estos proyectos y cuántas comidas se reparten a través de cada proyecto? ¿Qué valoración hace el Gobierno Municipal sobre ellos?
4. ¿Dónde se realizará el reparto de comidas incluido en el proyecto del nuevo centro de día de Villa Salia? ¿Se cumplirá el punto de reparto establecido por la empresa en el proceso de licitación?
5. ¿Cuál es la previsión del Gobierno Municipal de cara a los próximos meses y años en relación a los servicios para satisfacer necesidades de alimentación? ¿Tiene previsto algún avance en este sentido?

Donostian, 2025eko irailaren 5a

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

San Sebastián, 5 de septiembre de 2025

Izar Hernando Ibero
concejala del grupo municipal EH BILDU"

Maria Jesus Idoeta eta Izar Hernando andreek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen las Sras. Idoeta Madariaga y Hernando Ibero en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(12:12an Itziar Iturri andrea bileratik atera da)*

*(A las 12:12 h la Sra. Iturri Arrazola se retira de la sesión)*

*(11:14an Ricardo Burutaran jauna bertaratu da bilerara)*

*(A las 12:14h el Sr. Burutaran Ferré se incorpora la a la sesión)*

* * * *

Jarraian, deialdian gaiak aztertzeko aurreikusi zen

A continuación, se retoma el orden de tratamiento

hurrenkerari ekin diote berriro.

de los asuntos previsto en la convocatoria.

* * * *

**3.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, muturreko tenperatura altuko baldintzetan kirol-jarduerak egiteari buruzkoa.**

Ricardo Burutaran jaunak hurrengo interpelazioa labur azaldu du:

"EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta mutur-muturreko tenperatura altuak izaten direnean kirol-jarduerak egitearen gaineko **INTERPELAZIO** hau egin behar dio alkateari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean ahoz erantzun dezan.

**JUSTIFIKAZIOA**

Aste Nagusia zela eta, abuztuaren 15ean, ostirala, 19:30ean, Urrezko Kopa jokatzea zegoen programatuta: Aizkolariak Trinitate plazan.

Ordu hartarako alerta laranja aktibatuta zeukan Eusko Jaurlaritzak, muturreko tenperaturak zirela eta. Alde horretatik, Euskalmetek informazio-ohar bat atera zuen, eta tenperatura-balioak urteko garai hartako batezbestekoa baino 8-12 ºC altuagoak izango zirela ohartarazi zuen; egun haietan EAE guztian gaindituko zirela tenperatura altu etengabeen eta muturreko tenperatura altuen atalaseak, eta abuztuaren 15a izan zitekeela –zioen oharrak– bolada hartako egunik beroena.

Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak Osasun Sailaren autobabeserako gomendio batzuei jarraitzea aholkatu zuen; besteak beste, kirol jarduera fisiko gogorrik ez egitea aire librean tenperatura altuko boladetan, batez ere bero handieneko orduetan.

Baina, hala eta guztiz ere, egin egin zen herri-kiroletako jarduera hura, eta, saioa bukatu eta gero, parte hartu zuten aizkolarietako gutxienez biri kasu egin behar izan zieten plazan ziren larrialdi-zerbitzuek.

Hori dela eta, hauxe da behean sinatu duen zinegotziaren **INTERPELAZIOA**:

1. Zergatik erabaki zen jarduera hari eustea, nahiz eta tenperatura altuak izan eta Euskalmetek eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eman zituzten abisuak eman? Zuhur

**3.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la realización de actividades deportivas en condiciones de temperaturas altas extremas.**

El Sr. Burutaran Ferré expone la siguiente interpelación:

"Ricardo Burutaran Ferré, concejal del Grupo Municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta las siguientes **INTERPELACIÓN** al Alcalde, para su respuesta oral, en la Comisión de Servicios a las Personas, sobre la realización de actividades deportivas en condiciones de temperaturas altas extremas.

**JUSTIFICACIÓN**

Con motivo de la celebración de la Aste Nagusia, el viernes 15 de agosto estaba programada a las 19:30 horas la Urrezko Kopa: Aizkolariak en la Plaza de la Trinidad.

A dicha hora, el Gobierno Vasco había activado la alerta naranja por temperaturas extremas. En este sentido, Euskalmet emitió una nota informativa en la que advertía que los valores de temperatura serían de unos 8-12º C más altos que la media para esta época del año. Debido a ello, estas jornadas se superarán los umbrales de temperaturas altas persistentes y temperaturas altas extremas para toda la CAV. El 15 de agosto, rezaba la nota, que podría ser el día más caluroso de todo el episodio.

La Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco aconsejaba seguir una serie de recomendaciones de autoprotección del Departamento de Salud, entre las que se señalaba evitar realizar actividad física intensa al aire libre en episodios de altas temperaturas y, sobre todo, durante las horas de más calor.

Pues bien, a pesar de todo ello, la actividad de deporte rural se celebró. Una vez finalizada la misma, al menos 2 de los aizkolaris participantes tuvieron que ser atendidos por los Servicios de Emergencia presentes en la plaza.

Por todo ello, el concejal que suscribe formula la siguiente **INTERPELACIÓN:**

1. ¿Por qué razones se decidió mantener la citada actividad a pesar de las altas temperaturas registradas y de los avisos emitidos por Euskalmet y el Departamento

eta egokitzat jotzen duzu hori, 14 kanaerdiko ebakitzeak dakarren ahalegin fisiko handia kontuan hartuta?

2. Egoki iruditzen al zaizu Udalak eta/edo haren sozietateek jarduera jarraibide edo protokoloren bat eduki edo inplementatzea egin behar diren jarduerak baldintza klimatologiko txarretan egin eta arriskua handitzea dakartenerako? Hala bada, zer urrats emateko asmoa duzu horretarako? Ezezkoa bada, zergatik ez?

Donostia, 2025eko irailaren 5a

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferre
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

Jon Insausti eta Ricardo Burutaran jaunek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

de Salud del Gobierno Vasco?, ¿considera prudente y adecuada tal circunstancia habida cuenta del considerable esfuerzo físico que supone cortar 14 kanaerdiko?

2. ¿Considera adecuado que el Ayuntamiento y/o sus sociedades se doten o implementen algún tipo de instrucciones o protocolo de actuación ante la celebración de actividades en condiciones climatológicas adversas para su práctica que puedan suponer un incremento del riesgo?, en caso afirmativo, ¿qué pasos piensa dar al respecto?, en caso negativo, ¿por qué razones?.

Donostia, a 5 de septiembre de 2025

Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del Grupo Municipal EH BILDU".

Intervienen los Sres. Insausti Maisterrena y Burutaran Ferré en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**4.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Kaleko Afari Solidarioen bosgarren urteurrenari buruz**

2. gaiaren ondoren aztertu zen.

**4.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, en relación con el quinto aniversario de las Cenas Solidarias en la Calle.**

Se trató a continuación del asunto n.º 2

**5.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, 1813ko sarraskia oroitzeko ekitaldiei buruzkoa.**

Markel Ormazabal jaunak interpelazio hau irakurritzat du:

"Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, INTERPELAZIO hau egiten dio Kulturako zinegotzi ordezkari Jon Insausti Maizterrenari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean erantzun dezan.

JUSTIFIKAZIOA

Azken urteetan lan handia egin da 1813an gertatutakoaren oroimenaren inguruan. Memoria berri horren erdigunean, duela 200 urte donostiarrek bizi izandakoa dago. Garaiko donostiarren testingatzak berreskuratu eta gizarteratu dira. Aldaketa nabarmena izan da, Donostia Sutan elkarteak salatu izan duen bezala, orain arte antolatu izan diren oroitza ekitaldi nagusiek ez baitute "islatzen gertatutakoa": "Egun horretan desfile militarra egiten da (...) Desfilean tropa ingelesak eta frantsesak

**5.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre los actos de conmemoración de la masacre de 1813.**

El Sr. Ormazabal Gaztañaga da por leída la siguiente interpelación:

"Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al concejal de Cultura, Jon Insausti Maizterrena, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

En los últimos años se ha realizado una gran labor en torno a la memoria de lo acontecido en 1813. Esta nueva memoria se ha centrado en lo vivido por la población donostiarra hace 200 años. Así, se han recuperado y socializado los testimonios de donostiarras de aquella época. La diferencia ha sido notable, tal y como ha denunciado la asociación Donostia Sutan, ya que los principales actos conmemorativos que se han venido organizando hasta la fecha no "reflejan lo ocurrido":

elkarren aurka borrokatzen dira, eta sarraskiaren inguruan ez dute ezer adierazten. Guretzat garrantzitsua da sarraski hori erakustea, jendeak jakin dezan zer gertatu zen".

"Ese día se hace el desfile militar (...) En él las tropas inglesas y francesas luchan entre sí, y no se dice nada sobre la masacre. Para nosotros es importante mostrar esta masacre para que la gente sepa lo que pasó".

Urteetan, Abuztuaren 31 kalean, iluntzean eta modu xumean, baina duinean, gogoratu izan da gertatutakoa; azken urteotan, ordea, desfile eta irudikatze militarrak gailentzen dira. Memoria sekula ez da neutroa izan. Iraganari buruz zer eta nola oroitzen den, garrantzitsua da orainaldia modu batera edo bestera ulertzeko. Eta kontua zera da, jazartze eta bortxaketa kolektibo zekena eragin zuen gertakaria ospatzeak, ez duela, bere horretan, herritarron arteko bizikidetza errazteko "sentimendu positibo sakonik" sustatzen. Ez bada kontrakoa.

Durante años, en la calle 31 de Agosto, al anochecer, se ha recordado lo ocurrido de forma sencilla pero digna; sin embargo, en los últimos años predominan los desfiles y las representaciones militares. La memoria nunca ha sido neutra. Lo que se recuerda del pasado, así como la forma en la que se recuerda, es importante para entender el presente de una manera o de otra. Y la cuestión es que la celebración de un suceso que provocó una perversa persecución y violación colectiva no promueve, por sí sola, "sentimientos positivos profundos" que faciliten la convivencia ciudadana. Si no es lo contrario.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

1. Zer dela eta ez du Udal Gobernuak 1813ko sarraskia oroitzeko ekitaldien inguruko gogoetarik ireki? Asmorik ba al du Udal Gobernuak horretarako? Ontzat ematen du Udal Gobernuak gertatukoa kontatzeko gaur egun nagusitzen zen modua?

Donostian, 2025eko irailaren 5ean

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".".

Es por ello por lo que el concejal que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

1. ¿Por qué no ha iniciado el Gobierno municipal ninguna reflexión sobre los actos conmemorativos de la masacre de 1813? ¿Tiene intención de hacerlo? ¿Da por bueno el Gobierno municipal el relato de lo ocurrido que predomina en la actualidad?

San Sebastián, 5 de septiembre de 2025

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
concejal del grupo municipal EH BILDU".

Jon Insausti eta Markel Ormazabal jaunek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen los Sres. Insausti Maisterrena y Ormazabal Gaztañaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**6.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, emakume bat eta haren seme-alabak kalean utzi izanari buruzkoa.**

Izar Hernando andreak interpelazioa hau azaldu du:

"Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, interpelazioa egiten dio Maria Jesus Idoeta Gizarte Ekintzako zinegotzi delegatuari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Abuztuaren amaieran, Donostiako Harrera Sareak egindako salaketaren eskutik jakin genuen emakume bat eta haren lau seme-alabak kalean lo egin behar

**6.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre el abandono de una mujer y sus hijos en la calle.**

La Sra. Hernando Ibero expone la siguiente interpelación:

"Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente interpelación a María Jesús Idoeta, concejala delegada de Acción Social, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

A finales de agosto tuvimos conocimiento de una denuncia de la Red de Acogida de Donostia en la que señalaba que una mujer y sus cuatro hijos e

izan zutela. Harrera Sareak adierazi zuenez, emakumeak eta haren 3, 8, 10 eta 14 urteko seme-alabek Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuetara jo zuten, eta bertan haiei eskaintzeko zerbitzurik ez zegoela erantzun zieten. Ondorioz, gaua autobus geltokian igaro zuten, eta alde egin zuten hiritik. Harrera Sareak adierazi duenez, ez da lehen aldia horrelako kasu batekin topo egiten dutena.

hijas habían tenido que pernoctar en la calle. Según indicó la Red de Acogida, la mujer y sus hijos e hijas, de 3, 8, 10 y 14 años, acudieron a los Servicios de Urgencias Sociales, donde se les respondió que no disponían de ningún servicio que se les pudiera ofrecer. Como consecuencia de ello, pasaron la noche en la estación de autobuses y posteriormente se marcharon de la ciudad. La Red de Acogida señala que no es la primera vez que se encuentran con un caso de este tipo.

Era berean, zenbait hedabidetan, Udalak kasuari lotuta emandako informazioa ere zabaldu zen. Informazio horretan emakumeari eta adin-txikikoei zerbitzurik ez eskaintzearen arrazoiak ematen ziren, familiaren informazio pribatua publiko eginez.

Asimismo, diferentes medios de comunicación difundieron la información facilitada por el Ayuntamiento en relación con el caso. En ella se esgrimían las razones por las que no se prestó ningún servicio a esta mujer y a sus hijos e hijas. Además, se hizo pública cierta información privada de la familia.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

1. Zer dela eta utzi zituen Donostiako Udalak emakume hau eta haren lau seme-alabak kalean gaua igarotzen? Haren egoera baloratzen zen bitartean gaua salbu pasatzeko aukerarik zergatik ez zion eskaini udalak?

2. Zein da Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuetan adin-txikikoak tartean daudela jarraitzen den prozedura? Adin-nagusiekin jarraitzen den prozedura eta baldintza berak izaten dira adin-txikikoekin ere?

3. Zer dela eta zabaldu zuen Udalak familia honen inguruko informazioa? Ez al du prozedura honek gizarte zerbitzuetan gorde beharreko pribatutasun eta konfidentzialtasuna urratzen?

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

1. ¿Por qué dejó el Ayuntamiento de San Sebastián que esta mujer y sus cuatro hijos e hijas pernoctaran en la calle? ¿Por qué mientras se valoraba su situación el Ayuntamiento no les ofreció la posibilidad de pasar la noche a resguardo?

2. ¿Cuál es el procedimiento que se sigue en los Servicios Municipales de Urgencias Sociales en casos de personas con menores? ¿El procedimiento y las condiciones que se aplican con las personas menores son los mismos que se siguen con las personas mayores de edad?

3. ¿Por qué el Ayuntamiento difundió información sobre esta familia? ¿No vulnera este procedimiento la privacidad y la confidencialidad que los servicios sociales deben preservar?

Donostian, 2025eko irailaren 2an

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián, 2 de septiembre de 2025

Izar Hernando Ibero
concejala del grupo municipal EH BILDU".

María Jesus Idoeta eta Izar Hernando andreek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen las Sras. Idoeta Madariaga y Hernando Ibero, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**<u>7.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Gizarte Ekintzako akordioari buruzkoa.</u>**

**<u>7.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, en relación con el acuerdo en Acción Social.</u>**

Izar Hernando andreak interpelazioa hau irakurritzat eman du:

La Sra. Hernando Ibero da por leída la siguiente interpelación:

"Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko

"Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal

zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, interpelazioa egiten dio Maria Jesus Idoeta Gizarte Ekintzako zinegotzi delegatuari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailean Gizarte Ekintzako langileek abiatutako mobilizazio dinamikaren ostean, Udal Gobernuak eta saileko profesionalek akordioa lortu zutela egin zen publiko ekaina amaieran. Ekainean publiko egin zenaren arabera, urtarrila bitarte 16 langile berri kontratatuko dira Gizarte Ekintzako plantillan txertatzeko. Uztailean zehaztapenen inguruko galderaren aurrean, zinegotzi delegatuak adierazi zuen oraindik sinatutako akordiorik ez zegoela, zehaztapenak adosteko baitzeuden oraindik.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

1. Zer dela eta ez du Udal Gobernuak akordioa sinatzerik lortu Gizarte Ekintzako profesionalekin?

2. Zeintzuk dira adosteke dauden puntuak? Zein elementuren gainean daude zalantzak?

3. Aurrekontuen eztabaidan zein isla izango du Gizarte Ekintzako akordioak?

Donostian, 2025eko irailaren 1ean

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

María Jesus Idoeta eta Izar Hernando andreek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

